

**NAZARIO OLEAGAREN OMENEZ**

*Bilbo, 1984-VII-27*



## EUSKALTZAINDIAREN ETXE BERRIA ZABALTZEAN

*Bilbon, Plaza Barria 15; 1984, Uztailak 27*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

Patxi Zurikarai, Diputadu jauna  
Euskaltzainkideak  
Jaun-Andreak

Gaur estreineko aldiz batzarrea egiten du Euskaltzaindiak etxe galant honetan, Bizkaiko Diputazioari zor dion honetan. Jaunak: Ondo ohartzen naiz gertaera honek kolkoan gorderik dakarren esanahiaz eta garrantziaz. Zinez aro berri batean sartzen da gaur Euskaltzaindia. Urrats handia benetan gaur ematen duena.

Baina gaurkoa ongi ulertzeko atzokoa ere pixka bat gogora dezagun.

Guztiok dakigun bezala, Euskaltzaindia sortu zenetik hirurogei eta gehiago urte paseak dira. Orduan Euskaltzaindiak alogeraz hartu zuen Erribera kaleko etxebizitza hura —gaur den baino handiagoa zena, hori ere ez da ahaztu behar—, baina behin-behinean edo probisionalki hartu zuen, hots, leku egokiagoren bat bilatu artean. Hala aitortzen da argi eta garbi urte haietako gutunetan: Euskaltzaindiaren behin-behineko etxea deitzen zaio. Ikus, adibidez, *Euskera*-ren lehen zenbakia, 67. orrialdea. Badakigu, ordea, askotan zer gertatzen den: behin-behinekotzat hartzen diren gauzak gero betiko izaten direla. Erribera kaleko egonleku hark ere bizitze luzea izan du. Azkuek bere mendeaz ez zuen besterik ezagutu.

Azken urteotan, berriz, Euskaltzaindiak hazkunde handia eta miraritsua ezagutu du, eta gainera zetorkion eskabideari erantzungo bazion toki hura baino egokiagoa behar zuen inondik ere. Liburutegia, bulegoak, fitxategiak, artxiboa, fonoteka, batzar gelak... hainbeste gauza gero eta beharrago zirenak. Zerbait erremediatu zen egoera hau 1979. urtean Bizkaiko Diputazioak Arbieto kaleko etxebizitza utzi zigunean. Orduan bulegoak hara eramantzen ziren, liburutegia Erribera kalean utzirik. Hain zuzen, iazko uholdean hutsa-gatik libratu zen liburutegia hondamenditik. Suaren beldurra ere maiz izan dugu.

Egoera honek beste alde txar bat zuen: gauzak hiru edo lau leku desberdinetan eduki beharra. Liburutegia toki batean, bulegoak beste batean, salmentetako liburuen gordailuak beste bi edo hiru tokitan etab.

Orain dena etxe egoki batean kokatua izanen da. Bai. Hemendik aurrera, etxe galant eta apain honi eskerrak, dena leku batean eta Euskaltzaindiak duen egitekoari eta egitekoaren garrantziari dagokion bezalako etxean behar bezala jarriak izango ahal dira! Euskaltzaindiaren izenean eskerronik biziena agertu nahi diot Bizkaiko Diputazioari egin digun mesede paregabe eta esker-ga honengatik.

Gauza jakina da Euskal Herriko lau Diputazioen umea edo sorkaria dela Euskaltzaindia, eta lokarri hori guk gogoz aitortzen dugu. Baina aparte-ko modu batez Bizkaikoarekin lotura bereziak ditugu, zeren eta berau izan baitzen Euskaltzaindia sortzeko arazo honetan aurrea hartu zuena.

**Euskera** agerkariaren lehenbiziko zenbakian, 39. orrialdean, hona zer irakurtzen dugun:

“Orra azkenez, urrezko izkiz Euskaltzaindiak bere etxeko atari-gainean ezarri bearko duan eguna: 1918'ko Urtarrillaren 25 garrena”.

Egun horretan Elgezabal'tar Kosme eta Landaburu'tar Peli jaunek proposamena egiten diote Bizkaiko Diputazioari euskararen Akademia sortzeko asmoa onart dezan, eta era berean asmo hau beste euskal Diputazioei pasa diezaien, gero lauron artean asmoa obretan ezartzeko. Eta dakizuen bezala, halaxe egin zen.

**Euskera**-ren zenbaki berean, 52. orrialdean, Euskaltzaindiko lehen batzarrearen erabaki hau dator: Euskaltzaindiaren etxea edo bizitokia Bilbon izango dela. Eleizalde egin omen zuen eskari hau. Orrialde azpiko oharrak honela dio: “El domicilio de la Academia, a propuesta del Sr. Eleizalde y consultados los académicos de otras regiones, se resolvió establecerlo en Bilbao, como tributo debido al fuerte impulso que surge de aquella villa para todas las manifestaciones de la vida vasca. Allí radicarán las oficinas y demás dependencias estables de la Academia, sin perjuicio de que las reuniones puedan celebrarse en San Sebastián y otros puntos que se juzguen convenientes”.

Beraz, Eleizalde eskaturik, Euskaltzaindi sorberriak egindako lehen batzarrean —eta batzarre hori Donostian izan zen—, erabaki haur hartzen da: Euskaltzaindiaren etxea Bilbon egongo dela. Horren arrazoia ere entzun dugu: Bilbotik euskal gauzetarako bultzada edo eragin handia zetorrela. Bai. Euskaltzaindia sortzeko arazoan ere hala gertatu zen. Lau Diputazioek amankomunean sortua da Euskaltzaindia, baina aitzindu zena edo aurrea hartu zuena Bizkaikoa izan zen.

Guztiok dakigu, ordea, Euskal Herri hau, nahiz eta herri bat izan, nola dagoen gatzatua edo mamitua; nola, alegia, nortasun berezia duten lurralde historikoz osatua den. Euskaltzaindiak ere, urteak joan eta urteak etorri, beste hiriburuetan Ordezkaritzak jartzeko beharra somatu du, baina Euskal-

tzaindiaren batasuna inolaz ere zatitu gabe. Hala daude gaur Euskaltzaindiaren Ordezkaritzak Donostia, Gasteiz, Iruñe eta Baionan. Eta zenbait batzordeen lantegiak ere, gaurkoz behintzat, Ordezkaritzetan kokatuak daude, batzordekideen erosotasunari begiraturaz; baina, azkenik, jakina, dokumentazio guztia Bilboko etxera ekarriko da, zeren hemen baita Euskaltzaindiaren egoitza edo etxea.

Errepika dezadan berriz ere: Euskaltzaindia lau Diputazioen sorkaria da eta aparteko modu batean Bizkaikoarena. Lokarri hori gogo onez aitortzen dugu eta orain ere hortan gara.

\* \* \*

Eta beste zerbaite ere ospatzen dugu gaur: Nazario Oleaga euskaltzain eta Euskaltzaindiko Idazkaria izan zenaren jaiotzako mendeurrena. Urte askotan ezagutu nuen D. Nazario Euskaltzaindiko batzarreetan. Gizon "benetalaria" —Severo Altubek dakarren hitz batekin esateko—, legea zehatz betetzea maite zuena.

Gerra ondoko **Euskera**-ren lehen zenbakia haren ahaleginei esker atera zen. Eta berak eskaturik egin nituen nik zenbaki horretarako Aurkibide haiek, lehen aroko **Euskera**-ren Aurkibideak. Baina garai hartan ez genituen Arantzazun zenbaki denak, edo ez zeuden behar bezala enkoadernatuak, eta eragozpen hori agertu nion. "Zatoz neure etxera —esan zidan—, han ditut denak ongi erreskadatuak eta hartu behar dituzun garbitasunak". Eta halaxe egin ere nuen.

Baina gero, zenbaki hura agertu zenean, 1953. urtean, istiluak izan zituen, legezko baimenik gabe atera zelako, eta aurpegia eman behar izan zuen. Orain lehen aroko **Euskera**-k bir-argitara direnean, zenbaki hori ere bir-agertu da eta baita garai hartako batzar-agiriak ere, gaur arte agertu gabe egon direnak. Eta pixka bat bitxia edo arraroa dirudien zerbaite azaltzen da batzar-agiri horietan. Behin eta berriz dator zertzelada hau: D. Nazario ez da etorri batzarrera, eta ez dakigu zergatik, beti hain txintxo etortzen izan den gizona... Edozeinek pentsa lezake, hori irakurtzean, haserreturik edo egongo zela Euskaltzaindikoeekin, baina ez zen batere hala. Ene ustez, hau da arrazoia: **Euskera** zenbaki horren istilua konpondu arte ez zuen agertu nahi. Berak bere gain hartu zuen, ba, aldizkaria gerra ondoan argitaratzearen erantzunkizuna, baina uste ez bezalako oztopoak aurkitu zituen, eta harik eta auzia konpondu arte, ez zuen agertu nahi. Azkenean lortu zuen baimena, baina aldi hartakotz bakarrik. Ikusten duzuenez, urte latzak ziren haiek, eta Euskaltzaindiak asko zor dio D. Nazarioi urte zail haietan egin zuenagatik. Baina hemen dugu Gorostiaga jauna, D. Nazarioi buruz berariak eta espresuki mintzatuko zaiguna, eta ni ez noa gehiago esatera.

Bizkaiko Diputazioari eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen. Esker-rak, egin digun opari eta mesede handi honengatik. Lehen ere esan dut: Ondo ohartzen naiz gauza batez, eta da: Gaur aro berri bat hasten dela gure erakunde honentzat. Aro berri hori izan dadila euskararentzat emankor, dohatsu eta ondoriotsua.



## NAZARIO OLEAGA EUSKALTZAIN ZENAREN OROIMENEZ

*Bilbo, 1984-VII-27*

*Juan Gorostiaga*

Euskaltzainok eta adiskideok. Gehienok adiskideak gara. Pozgarria da Euskaltzaindiarentzat lenen aldiz etxebarri edo egoitza barri honetan sartzea, eta bertan jarlekua hartzea. Pozgarria eta samurra, Nazario Oleaga euskaltzain kide zanaren oroimen hau egiteko. Holan gure euskaltzain zaharren asmoak eta lanak aurrera doakez betiko bakean. Ilargi zaharra barri bezala; zaharra eta barri, barri eta zaharra. Hirurogei eta bost urtetxo honeitan, 1918an, hau da, Oñatiko Batzarrean Euskaltzaindia sortu zanetik euskerak eta euskaltasunak ilunaldi eta hutsaldi, gure partetik be, haundiak ikusi ditu.

Don Zirilo Arzubiagak, Zornotzako *jaungoikozalea* aldizkariaren eragile, Paris edo Londresen egon zanean, hauxe idatzi eban (*Anaia*-n, Parisen, eusko apaizek ataratzen eben aldizkarian):

“Gure eusko ikastolak itxita dagoz, gerra denporan, hau da sartadarik aundiena. Urte askoren buruan, gau eta egun, askotariko lanez idatzitako euskal idazti ederrak, suak iruntsi ditu; bai, *jaungoikozale* bazkuneko abade ixil eta apalak, ogei eta bost urte onetan, argitaldu ditu idazti mamitsuak, gure Erriaren kristautasuna biziago eta beroagotzeko ziran idazlanak; hau arrigarrria. Kristoren izena ao miinean darabilenak, sutan ondatu ditue. Etxean, kalean, elizan bertan euskeraz mintzatzea eragotzia...”.

Baina gu etorri gara bakean bizitzeko eta jakin behar dugu zer pasatu zan. Gaur etorri gara euskaltzain zanaren gorespena egiteko. Gure artean, beraren andra alarguna, Nazarioren alarguna, asmoz behintzat hemen dago, eta beste etxeakoak: anaiak, semeak...; batez be Jesus, gure lagun urgazlea. Horregatik ba, euroi guztioi, gure besarkada maitekorra.

Euskalduna zan, Nazario, euskaltzalea. Eztakit idazlaria ete zan, eta mintzalaria edo hablista ete zan; Baina ondo egiten eban. Euskalaria zan. Beti galdetzen ibiltzen zan euskera zaharra zelakoa zan Donostiara joaten ginean: hau zer da? Zeanuri, zer da? Oleaga, zer da? Zein izen da hau? Beti galdezka. Ez zan ibiltzen txantxetan. Eta euskaltzaina. Ganera legegizona eta Euskal Herriko edesti edo historian, jakitun. Eta, batez be, langile sutsua. Inor baino zadorlari edo idazkari kargua hartzeko hain egoki, nire ustez.

Beraren zadorlari liburu edo aktetan dago berak idatzita geure Euskaltzaindiaren edestia: 1941-1961 bitartean. Zenbakiok dira etorkizuneko euskerarenak. Baina edesti bizia, ez motela, sakona. A. Luis Villasantek esan deusku Euskaltzaindia zelan ibiltzen zan lehen. Aurrera ba, goazen aurrera. Nahiz euskaraz nahiz erdaraz, ulertuko garala, uste dot.

Nazario Oleaga, Bilbon jaio zan, Uztailean, orain ehun urte; orain ospatzen dogu beraren mendeurrena. Erronda kalean jaio zan. Hogei urte lehenago Unamuno kale bertan jaio zan. Hemen jaio eta hemen hil zan. Lehenengo ikasketak Eskolapioetan egin ebazan, eta gero Deustuan. Eta 1905ean, Lizentziatua zan: “Licenciado por la Universidad de Salamanca”.

Eta beraren bufeta edo, hemen Bilbon, ipini eban. Baina Zeanurin –Arratiko herritxu bat– “ejerció el cargo de Secretario”, 1925arte. Baita aukeratu eben: “Vicedecano, en funciones de Decano de Colegio de Abogados de Bilbao”.

“Las manifestaciones Culturales de Nuestro Pueblo, tuvieron más que atisbos ya en el siglo pasado, aunque muchas veces también en Vizcaya y en otras partes se escribió poco en euskera, y aún se perseguía. En Getxo, mi pueblo, aquellos representantes de los pueblos, porque no sabían euskera no fueron admitidos, fueron rechazados. Y patrocinado, en el primer Congreso de Estudios Vascos, por las cuatro Diputaciones y por los tres Obispos de las diócesis de Vitoria, Pamplona y Baiona, en la Universidad de Oñate, en 1918, el Rey Alfonso XIII, inauguró Euskaltzaindia”.

Lehenengo urteetan, Euskaltzaindia, ederto joan zan, argi, mardultsu; gerra denporan, dena hondatu zan, Zirilo Arzubiagak gorago esan dauanez. Baina gero, berriro, hartu eban bizia, eta orain arte. Jaungoikoari eskerrak, ondo bizi da. Ondo bizi da, nire ustez, holako gizonak, holako jakintsuak ikusi... holako bihotza ikusita... hau ederto doa... baina etorkizuna zelakoa izango dan eztakigu. Beti gabiz pentsetan zer izango dan... eztakigu. Oraingoa, hau da. Lehen Euskal Herri –Euskadi– bakarra zan. Orain, nire ustez, bi etnia edo lau subetnia dira.

Orain, Euskaltzaindian, 24 bazkide; lehen, hasieran, lau; gero hamabi... apurka apurka joan da zabaltzen, mardultzen. Baina, 1919an, Nazario Oleaga, urgazle aukeratu eben. Eta, 1948an ‘elegido por la Comisión de Juristas para el estudio de ordenación del Derecho Civil de Vizcaya, y también fue miembro de la Junta de Cultura de Vizcaya’. Publicó en euskera el libro de Gregorio Mugica: *Zurtasun gogoa*.

1961ean, hil zan eta gure *Herria* aldizkariak hau ekarri eban:

“Mugaz handitik hona, Nazario Oleaga, Euskaltzaindiko Sekretarioa, hil da”;

Argi eta garbi esan eban.

Urgazle egin ebenean, *Erizkizundi Irukoitza* delakoan; gero R. M.<sup>a</sup> de Azkuek gipuzkera osotua esaten eutsonea, euskeraren batasunean sartu zan.



Gero, 1931.ean, Bilbon 'La Junta de Gobierno de euskerazaleak. Bizkai-koa' egin zan, eta Nazario Oleaga, Lehendakari edo Buru aukeratu eben. Halan ba, euskeraren zahartasuna, euskeraren batasuna, euskerazko etimologiak, bertsolarien txapelketetan eta abarrean sartu zan. Langile sutsua zan, baina beraren lana itzi barik. Holan ba, gure edesti edo forua sakondu eban.

1941.ean Zadorlari edo Idazkari egin eben. Horrela hil arte. 1957an, R. M. de Azkue jaunaren omenez, hitzaldia egin eban.

Liburutegi eder bat itzi deusku. Liburutegi sakona, mamitsua. Berton gauza asko baliotsuak dira: "biblioteca rica y variada".

Aita Intzak, artikulu batean, hau diño: "Euskaltzaindiko neure leenbizi-koa laguna izan zen Nazario Oleaga. Nazario fue, desde el principio, de los urgazles que acudieron a las reuniones de Bilbao con más asiduidad. Un gran entusiasta de la Academia ya que acudía a las reuniones".

Aurreragotik, beti gurekin izaten zan Nazario Oleaga jauna. Asi, dicho con amor y con admiración.

Eta orain beraren bizitza sakon edo intimora pasatuko gara. Zer zan barnean? Gizon jatorra, ederra. Txikia zanean —txikitan berak esaten eban— makaltsua zala. Eta amak sendagilearengana eroan ebal. Sendagileak: fruta asko jan behar ditu honek.

— Amak: eta dirua nun dau horretarako?

— Medikiak: ba daukazue. Hau gizon haundia izango da.

Gu Donostiara joaten ginenean, hilean behin edo, bidean ez ginan ixilik joaten. Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue be berbatsua zan eta beti gai bat. Orduan Ormaetxea eta ni urgazleak izan ginan.

Bazkaltzean, Hotel Arana edo Aritz hotelean, limoia ekarten eben arrainegaz. Eta hau, zertarako da? "Arraina ona eta freskue ba da, ez dogu horren beharrik".

Beraren buruaz kezkatu rik ibiltzen zan. Niri esaten eustan:

— Oleaga, zer da?

— Nik: Oleaga, apellidu edo abizen edo deitura bat da. Euskal Herrian eta baita kanpoan be.

Bernard Diaz de Castillok Amerikako historia bat idatzi eban, eta han hau diño:

"Fulano de tal, el Olea; Olea, natural de Medina de Campo".

Eta Santanderen be, Reinosan, herritxo bat dago: Olea.

Hori euskera da, nire ustez. Olea, Oleaga, Ola... zer esan nahi dabe?

Nik behin esan neban **Euskera** agerkarian: "*Ola* = aula, aula de los pastores" (Vulgar "ola").

Gero artzainek itzi ebezan ardiak eta burdinaz hasi ziran. Burdina ebagiten... errementariak ziran. Eta horregatik, Zuberoan gaur egun 'rural edo pastoral' adierazi nahi dau. Baina gure artean, Bizkaian eta Araban, 'ferreria' esan nahi dau.

'Oleaga': Olea-ga: 'el olea': Olea + a.

Bizkaian: Bizkaian: ga: artikulua. 'Balenziaga': Valencia + aga: 'el Valencia' = Valencia-tik etorri zan bat; 'el francés, la Francisca, el Francisco'... antzera. 'El' sartzen dabe leku batzutan. Gandiaga < el Gandia. Bediaga "el Bedia".

Ansola 'la ferrería de Anso': *Anso* izen germaniko bat: anso, antso... Anselmo... sancius, Santxo, Santso... Ansoleaga: Anso + 'el' Oleaga... el apellido 'el Olea'.

Hemen, Bilbon: Colón de Larreategi: 'tegi 'local, sitio'...' el sitio donde vive un tal 'Larrea', el apellido 'Larrea'.

Novia de Salcedo: bi abizen edo deitura batu egin ziran: 'fulano Novia'... eta beronen andrea edo emaztea 'M.<sup>a</sup> de Salcedo'. Gero euskaraz: 'Zugasti Novia'.

Usparitxa auspo + arotzaga.

Zeanurin, 'Vitoria' = 'Bitturi' esaten zala adierazten euskun Nazariok. Gero, ba, 'Zeanuri', 'Bitturi' = analogiatatik.

Zeanuri = Villacián, Izauri-eta = Villahizan, Herramelliri = Villaramiel eta, etc.

Gaztelugatx: 'San Juan de la Peña del Castillo': 'el Castillo empinado'. Berau, Iturriak be badakar. Baina ezta holan. Aragoian, Monastegi bat egoan. Gero, el rey Sancho edo beste batek Bizkaira ekarri eban; 'La ermita de San Juan de la Peña del Castillo' = Gaztelu-atx.

Ozaeta: 'Frias'; Marieta: 'Marias'.

Erronkarin: Idogoras = Irigarai...

Azkuek bere hiztegian: "*abaxl*": apaches: Los Apaches de Paris.

Bizkaian: ikusiko dot; Iparraldean: ikusiren dut... forma del futuro: "he de ver" "-ren" sufijo por persona... nork dauka arrazoia?

Nazario Oleagak perritxekoak asko maite zituen, perritxekero haundia zan. Zeanurin egon zanean, mendi eta pinadietan ibiliz, 25 mota ezagutu zituen. Nazariok bi perritxeko mota edo barri Katalunia'tik ekarri ebazan.

Nazario Oleaga sekretarioa zan. Eta sekretario berbak zer esan gura dau? Las funciones del secretario: redactar y certificar las actas. Extender y firmar los documentos que escriba la sociedad, la Academia. Llevar la corres-

pondencia y los documentos de ella. Presentar cada año y leer en sesión pública una memoria de resultados.

Guztiau, Oleagak pozik eta ederto bete eban.

Guzttoi eskerrik asko. Guztiontzat besarkada bat eta baita Nazarioen etxekoentzat be.

Orain Jesus Oleagak —gure Jesusek— dauka azken hitza. Berak emon deiela. Eskerrik asko.



## NAZARIO OLEAGAREN OMENEZ

*Bilbo, 1984-VII-27*

*Jesus Oleaga*

Jaun-andreak, Adiskideak:

Poz-pozik entzun dautsagu antxiñako gure adiskide biotzeko ta agurgarri dan Juan Gorostiaga jaunari, berak Euskaltzaindiaren izenean egin dauan berbaldia, nire aita izan zan Nazario Oleaga Muguruza-ri buruz.

Ain zuzen be, biar dira eun urte (Uztailaren 28,a) Bilboko Ronda kalean jaio zana. Au dala-ta, neure barru-barruko pozaldia agertu nai dautset egintza agiri onetan eskuartu daben guztiori, nire eskerroneko berba laburren bidez.

Eskerrak damotsuedaz benetan; leenen nire amaren izenean; ainbat urte daukazanarren, gure artean bizi izateko indarrak emon dautsaz Jaungoikoak; ondo erakusten dausku ama izatea zer dan, etxeko arazoetan arduratsu eskuartzen dauala, Don Nazario bizi zanean be egiten ebanez, naita zartza-roan zerbait gitxitu indarra.

Oraintxe be, asti asko emoten dau bere senarrak ainbeste maite eban euskerea zabaltzen. Era berean, onen seme-alaba eta nire anai-arreba diranen eskerrona agertzen dot, etxeko gustiok jaso genduan gure izkuntzaganako matasuna jakinerazorik.

Agirian dagoz, eta gaur egun lagunak onetara adierazo dauskue, bai izparringietan ta bai emen darabilgun eginkizun alaian, Don Nazarioren ardurea ta buru-ekintza euskeraren eta Euskaltzaindiaren alde. Izan be, Euskaltzaindia eratu zan urte berean, Euskaltzaindiko Urgazle egin eben milla bederatzireun eta emeretzigarren urteko Urrillaren 26an. An dago, agiri ori gaur be gure aitaren lan-gelan, Euskaltzaindiko Buru ta Idazkari ziran R. M.<sup>a</sup> de Azkuek eta Luis Elizalde izenpetuta.

Guzti ori ederto ta artez azaldu dausku Juan Gorostiaga jaunak. Argi dago sakonkiro ezagutu ebala gure aita. Nok jakin, Azkue jaunagaz batera, baita beste lagun oso gitxi ebela eurakaz, Ribera kaleko 6garren etxean euskaltzalle areik egin ebezan orduak, baita egunak eta urteak, euskera lantzen, indartzen eta zabaltzen?

Orregaitik, gure etxekoai dagokionez, eun urteurren au ospatzean, abagune au oso gogoko egiten yakula esan bear.

Beste alde batetik be, gogoan dabe Don Nazario, Abogadu lez, beronegaz artu-emonak izan ebezan pertsonak (emen ikusten dodaz adiskide batzuk), aren jokabide zuzena, aren adorea ta kemena —batzuetan estu-samarra izanarren be—; ezaguna zan aren egikera berak erabilten ebazan auzi-arazo guztietan, Bizkaian eta Bizkaitik kanpo.

Es dausat jarraituko ari oni, bera ta bere nortasuna zuetariko askok ezagutu eben-eta. Baiña bera ezagutu ez eta aregaz artu-emonik izan ez ebenai, auxe esan daikeet; guztientzat adiskide zintzoa izan zala. Eta orixe izan daiteke emen, orain eta beti, aren mandaturik onena, ori eta aitatu dogun Euskalerra edo Euskadi, onen Foru ta Legedi eta euskeraganako ardurea. Bizi bedi beti ardura ori gure erriaren ondoan.

Agur eta barriro be, etorri zarien guztiori eskerrik beroenak.

## SEBASTIAN ANTONIO DE LA GANDARA BIZKAIKO IDAZLEA

*Bilbo, 1984-VII-27*

*Jose Antonio Arana Martija*

Maisu dudan, eta aspaldidanik adiskide, Juan Gorostiaga jaunak, Nazario Oleaga Euskaltzaindiko Idazkari eta, dirudienez, Zadorlariaren oroipen eta goramena egin digu. Beste Bizkaiko idazle bat aipatzea dagokit, gaur bizkaitarrok harro egoteko karirik badugu eta. Euskaltzaindiaren jaiotzean Bilbok eman bazion babesa, lehen egoitza eskaintzean, hemen gaude gaur egun historiko batetan, Diputazioak, Bizkaikoak noski, aurrerantzerako eskaintzen digun egoitza berrian. Ez naiz ni inor eskerrak agertzeko, Euskaltzaindiak eta Euskal Herri guztiak ematen baitiote Bizkaiko Diputazioari emaitza honegatik neurrigabeko eskerrona. Baina Bizkaiko idazle bat aipatuaz, Sebastian Antonio de la Gandara, alegia, eta nere herkidea gainera, Bizkaiko Erakunde nagusiak ere baduela arrazoirik uste, harro eta pozik izateko, hurbil, eta orain etxean daukan Hizkuntz Akademiari orain ere beharrezko babesa eman diolako.

Lehen ere eginak ditu halako laguntzak Bizkaiko Diputazioak. Euskaltzaindia sortzeko lehen urratsak berak eman zituen eta gogoan ditugu denok 1906an eta 1907an Adolfo Gabriel Urkixok, orduko Ahaldun edo Deputatu Nagusiak prestatu zituen Arautegiak, eta Bizkaiko Diputazioa izan zela Euskal Herriko besteei Euskararen Akademia bat sortzea eskatu ziena. Baina hori ia gaurko historia da. Gandara bizkaitarraren lana aztertu behar dugunez, XVIII. mendera joko dugu Diputazioaren laguntza bitxi bat gogoratzeke. Gandara aipatukeran beti dugu inguruan Larramendiren itzala. 1762an gutun batekin igorri zion Gandarak Larramendiri urte bereko Abenduan idatzi zuen *Gabon Canta Guernicacoa*. Eta Loiolatik erantzun zion Larramendik, hurrengo Urtarrilaren 23an, honako hau:

«Irakurri ditut Gabon Kantak eta azkenean paratu diotet “Impri-mantur”, hain daude ederrak, gozoak, kilikorrak. Etzaitzela aurrerako nagitu ez alpertu: ixeki sail honi, molda itzazu honelako asko ta ugari...»

Hain “mexhu chito Arguiti”gandik “icaslechu humil zindoak” hartu zuen adorea ez zen makala izan eta 1763an bi gutun zuzendu zizkion Gandarak Larramendiri, udan eta gabonetan. Baina ez du Larramendiren eran-

tzunik eskuratzen eta minduta agertzen zaigu gure Gandara 1764.eko Abenduaren 20an, Larramendiri igortzen dion bigarren Gabon Kantarekin batera zuzentzen dion gutunean: “Aginduta deustazunari, ahal dodanez egiten deustadala deritxat”. Horretan amaitzen dira josulagun eta abadearen harremnak.

Ordurako argitaratuta zeuzkan Larramendik *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España* (Salamanca, 1728), *El Imposible vencido. Arte de la lengua bascongada* (Salamanca, 1729) eta *Diccionario Trilingüe* (San Sebastián, 1745). Baina bigarrena kaleratu orduko ez zen hain ezaguna, eta gutxiago lehena kaleratu orduko. Ba, hemen dugu Larramendiren biografiarako datu bitxi bat: Labayruk esaten digu (1) 1728an ehun dukat bidali zizkiola Larramendiri Salamancara Bizkaiko Diputazioak “Gramatica del Bascuence” hori argitaratzeko. Xehetasun gehiago ematen dizkigu Fidel Sagarminagak (2):

«El 24 de Mayo se despachó un libramiento de cien ducados de vellón en pago de una letra a la vista, enviada al Padre Manuel de Larramendi, de la Compañía de Jesús, maestro de teología en su Colegio de Salamanca, para ayuda de costa de la impresión del Arte del Bascuence que sacó a luz, en vista del memorial presentado de parte de Larramendi en las últimas Juntas Generales, y que se remitió para que lo resolviera, con otros memoriales, al Gobierno.»

Baina laguntza hori ematea erabaki orduko eztabaidak eta istiluak izan ziren Batzarretan eta Diputazioan, Sagarminagak zera esaten baitugu toki berean:

«No se debe pasar en silencio un papel de autor anónimo, que suena escrito como informe pedido por el Señorío, bajo el título de *Reparos historiales que se hacen a la dedicatoria que el Padre Larramendi, de la Compañía de Jesús, hizo a la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa del libro titulado “El imposible vencido”*. En dicho papel se ataca duramente a Larramendi, imputándole, entre otras cosas, el haber apropiado a Guipúzcoa las glorias pertenecientes a Vizcaya.»

Dena den, azken erabakia laguntza ematea izan zen eta hor dugu Bizkaiko Diputazioak euskararen alde XVIII. mendean egindakoa. Gipuzkoa maiteago izatea Larramendi giputzak normala iruditzen zait, baina Bizkaiaz zeukan irudia, euskararen arloan behintzat, ez zen Gipuzkoaren hainakoa eta hala azaltzen du, Gandarari 1763an idazten dion gutunean:

«Halako gutunik, zurea bezelakorik, inork ere ez dit egin Bizkai alde hortatik; Gipuzkoatik ere gitxik.»

(1) ESTANISLAO JAIME DE LABAYRU y GOICOECHEA: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbao-Madrid, 1895-1901, VI. Tomoa, 156 orr.

(2) FIDEL DE SAGARMINAGA: *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya*. Bilbao, 1892, III. Tomoa, 345 orr.



Liburuak inprimatzeko laguntzak orduan ere ugari eman zituen Bizkai-ko Diputazioak. Larramendirena ez ezik, 1722an beste erabaki berdintsu bat hartu zuen sasoi hartan, eta aipatzen badut, gure bibliografian ezezaguna delako da. Labayruk (3) dioskunez:

«Presentó don José Ibáñez de la Rentería cuatro tomos que en 1673 escribió el Bachiller Simón de Ibarra conteniendo 1.118 páginas y se deliberó, después de resolver darle las gracias a Rentería, que el futuro Gobierno de Bizcaya confiriese lo preciso para imprimirlos. Sin embargo, el tratado aludido que trataba de la Nobleza de Bizcaya y sus Encartaciones no vio la luz pública, ni se sabe dónde para.»

Labayruk ematen zigun zehaztasun hau ematea beharrezkoa zen, Renteriarena dela liburuia esaten baitigu Sagarminagak (4):

«Acordaron y decretaron sus Señorías (el 22 de Julio de 1722) que se den las gracias al Señor Doctor don Joseph Ybañez de la Rentería, Predicador de sus Magestades y Cronista de este M. N. Señorío, por el zelo y vigilancia con que ha escrito sus memorias en cuatro libros; y cométele a los Señores del Gobierno futuro contemplen pre-misso lo necesario, las providencias para la impresión.»

Simon de Ibarrena zen beraz inon agertzen ez den lau tomoetako Memoria hau, eta inprimatu ez bazen, nonbaiten egongo da eskuskribua.

Larramendirekin loturik dago josulagunek Bilbon zeukaten Ikastetxea. 1726an, Matematika Katedra bat sortzeko bidea bultzatu zuen Bizkaiko Diputazioak (5) Martxoaren 31an:

«Decretaron se haga insinuación de tan importante utilidad a la señora doña Josepha Adan de Yarza, como Fundadora y Patrona de unas cátedras que con el señor A. Miguel Velez de Larrea, su marido difunto, instituyó y dotó en el Colegio de la Compañía de Jesús de la Villa de Bilbao, para que tenga a bien prestar su consentimiento a fin de que parte de aquella dotación sirva para la manutención de una Cathedra de Mathematicas en el referido Colegio... tratando al efecto con los RR.PP. Rector y Religiosos del referido Colegio y sus Superiores.»

Larramendi eta Gandararen arteko harremanak bukatuta hiru urtera, 1767an, Espainiako Karlos III. Erregeak josulagunak egotzi zituen Martxoaren 29ko Dekretu baten bidez. **Apis** aldizkari arraroan ematen dizkigu Labayruk egozketa honen berriak (6): Bilboko josulagunek Civita-Vechia

(3) E. J. LABAYRU: *Op. cit.* VI. Tomoa, 123 orr.

(4) F. SAGARMINAGA: *Op. cit.* 261 orr.

(5) E. J. LABAYRU: *Op. cit.* VI. Tomoa, 140 orr.

(6) E. J. LABAYRU: *Apis* aldizkaria, 1888-1-26, 4. zka. 25-29 orr. eta 1888-2-2, 5. zka.

aldera irten zirela Maiatzaren 3an diosku. San Andresen izena zeraman Ikastetxe honetara, San Juan Parrokia ekarri zen orduan. Lekeition josulagunek zeukaten Ikastetxea Nautika Eskola izatera bihurtu zen, bertan ematen ziren latin ikasketak moztuz, Erret Dekretuaren eritziz “la enseñanza de latinidad no es necesaria en aquel pueblo”. Urduñako Ikastetxea ere itxi egin zuten egun haietan, 1769.eko Maiatzaren 16an, eta apaiz bihur eta okerrak biltzeko egoitza izatera desmezzatu zuten, beste batzuen artean baldintza hau jarritz: “que estos eclesiásticos, sobre su doctrina y buen ejemplo, posean bien el Bascuence”.

Norbaitek esan dezake luzeegi haintzakotzat hartu ditudala hemen josulagunen arazoak. Baliteke, baina ez dut halakorik egin lehen aipatutako Larramendiren itzala azpimarratzeagatik bakarrik, josulagunek XVIII. mendean euskararen aitzindariak izan zirelako baizik. Mende honen lehen erdian jaiok bereizten baditugu, apaiz pila azaltzen zaizkigu, baina gehienak Doktrina egileak edo itzultzaileak ditugu, eliztarrak heitzeko testu egileak, adibidez:

Martin Arzadun, 1675-1741  
 Joannes Haraneder, 1669-  
 Jose A. Mikelestorena, 1710-1785  
 Martin Duhalde, 1733-1804  
 Andre Baratzart, 1738-1826  
 Juan Inazio Gerriko, 1740-1824  
 Juan Bta. Agirre, 1742-1823  
 Juan Antonio Moguel, 1745-1804  
 Joannes Lizarraga Elkanokoa, 1745-1823  
 Salvat Monho, 1749-1821

eta bakoitzaren alboan jartzen dudan datan lanak argitaratu zituzten honako hauek: Mixel Xurio (1718), Juan Irazusta (1742), Martin Maister (1757), Frantzisko Xabier Lariz (1757), Bartolome Olaetxea (1763) eta gure Sebastian Antonio de la Gandara (1757). Garai honetan eman dezakegun laikoen zerrenda hautatuagoa da, beharbada:

Joannes Etxeberri, Sarakoa, 1668-1749  
 Pedro Inazio Barrutia, 1682-1759  
 Frantzisko Xabier Maria Munibe, 1723-1785  
 Martin Harriet (1741)

Apaiz eta laikoetatik aparte, erlijiosoen artean Frantziskotarrek eman zizkiguten bi izen XVIII. mendearen lehen erdian:

Juan Antonio Ubillos, 1707-1789  
 Juan Antonio Añibarro, 1748-1830

Baina euskararen erabilera eta gure hizkuntzaren ikerketetan josulagunek ematen digute Ilustrazioaren mendean zerrendarik interesgarri eta ugariena:

Manuel Larramendi, 1690-1766  
 Joan Bautista Gamiz, 1696-1773  
 Agustin Basterretxea, 1700-1761  
 Domingo Patrizio Meagher, 1703-1772  
 Agustin Kardaberaz, 1703-1770  
 Sebastian Mendiburu, 1708-1782  
 Diego de Goitia, 1739-1829

Hona hemen Ordena hau bereizteko arrazoia. Baina, hala eta guzti ere, ez da bereiztasunaren arrazoi bakarra, gure Gandararen garaikidea baitugu Agustin Basterretxea, josulaguna eta bizkaitarra. Bere *Jesu Christo gure Jaunaren Passioa*, hainbat aldiz kaleratua, oso ezaguna da oraindik gure artean eta Gandararen sasoiari bezala kantatzen dugu egunotan Gernikan. Datorren urtean ospatuko dugu Erromualdo Galdos josulagunaren mendeurrena eta eibartar honek argitaratu emandako liburuxka baten berri eman nahi nuke gaur, gure bibliografietan agertzen ez baita. Donostiako Nueva Editorial zelakoan argitaratu zuen Aita Galdosek 1928.eko Aste Santuan 48 orrialdedun eta neurri handiko liburuxka bat, Basterretxearen bizkaierazko testua eta Kardaberaren gipuzkerazkoa emanaz, euskalki bietarako orduan erabiltzen ziren doinuak ere agertuz (7). Aita Jose Antonio Uriartek esan zigenez, 1760 baino lehen argitaratu zen Bilbon bizkaierazko testu originala, eta urte horretan argitaratu zuen Kardaberazek Iruñean gipuzkerazko testua, *Christauren bizitza* liburuaren orrialde barnean. Gero, 1777an agertu zen, Bilbon kaleratua, lehen ezagutzen dugun bizkaierazko argitarazioa. Argitalpenen artean, Euskaltzaindiaren ardurapean Alfonso Irigoyenek 1959an egindakoa dugu, ohar mamitsuekin (8). Bizkaierazko testua kantatzeko doinu nahiko desberdinak erabiltzen dira, nahiz eta melodiaren arkitektura aldetik antzerakoak izan. Irigoyenek bat ematen digu, Aita Iturria frantziskotarrak bildua. Beste bat ere badaukat Aita Jose Domingok Markina aldean bildutakoa. Guk Gernikan kantatzen duguna hau da:

Je-su kristori kendu ezke-ro

peka -tu- agaz bizitza

(7) Y. L. GALDOS-TAR ERROMAL: *I.H.S. Yosukisto gure Yaunaren Nekaustea euskerazko neurtitzez*. San Sebastián, Editorial Nueva, S. A., 1928, 48 orr. 23,5 × 27 zm.

(8) ALFONSO IRIGOYEN: *Euskal-Kantak*, Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1959, 17-23 orr.

10  
bardin ez badot negar e-gi-ten

8  
harriz-ko - a dot bihotza

5  
guztiok lagun

5  
abestu daigun

8  
bere penazko\_eriotza

Bizkaierazko testuarekin kantatzen dugun doinu honek oso ondo errespetatzen du bertso berezi honen egitura, hots, 10, 8A, 10, 8A, 5B, 5B, 8A. Baina Gipuzkoan kantatzen den doinuak, edo Mutrikun Aita Jose Arrue frantsizkotarrak hartutakoak eta Aita Galdosek liburuxkan argitara emandakoak, behintzat, Bizkaiko zazpiko bertso berezi hori seikoa bihurtzen du, bostgarren eta seigarren 5B eta 5B lerroekin hamar silabadun lerro bakar bat eginez. Eta ez da hau aipagarri bakarra; Kardaberazen itzulpena kantatzeko erabiltzen den doinu hori, Gipuzkoa aldean bakarrik noski, Euskal Erri osoan kantatzen dugu orain hiletetako liturgia berrian, zenari azken agurra eliz barruan ematerakoan.

10  
Jesu-kristori kendu ezker

8  
be-ka-tu-a-kin bi-zi-tza

10  
baldin ez padet negar egiten

8  
harrizko-a det biho-tza

guzi-ok lagun kanta dezagun  
bere penazko\_eri-o -tza

Luzea izan bada Basterretxearen aipamena, gaur eta hemen gure harira ondo datorrena da, ene ustez, beste XVIII. mendeko idazle bizkaitar bat gogoratu baitugu, eta bidez batez, Gandararen sasoiko doinuak kantatu baititugu.

Sebastian Antonio de la Gandara bere lanetatik ezagutzen dugu soilik; gernikarra zela badakigu, baina ez dugu oraindik lortu jaiotza eta heriotzako daturik. Lehendik daukat idatzita (Ikus "Euskera" 1976, 89-98 orrialdeak) orain arte jakin izan dugun guztia. Ene ustez 1700 inguruan jaio zen eta 1780 inguruan hil zelakoan nago. Gernikako Andra Maria Parrokian izan genuen apaiz. Xabier Altzibar adiskideari zor diot Calahorrako Artxiboan gordetzen den agiri baten berri: 1743.eko Apirilaren 4an bilera bat egin zuten Busturriako Bikariako Kabildoez eta Gernikako bi Eliz edo Parroki batuen ordezkari gisa azaldu zena gure Sebastian Antonio de la Gandara izan zen, ordurako Benefiziato osoa zena. Geroago, berak dioskunez, "Protonotario Apostólico, Presbítero Beneficiado de esta Villa de Gernika" izan zen. Parrokiaren etxazain edo mayordomo kargua eduki zuen 1749 arte eta zazpi urtetan edo Madrid aldera joan zela esango nuke (1749-1756) azken urte honetan sinatzen baitu erdal olerkitxo bat Gortean. Gernikara itzuli zen lehen Gabon Kanta (1757) idatzi orduko eta beste euskarazko lanak ere Gernikan sinatu zituen gero.

Gernikan sinatzen du Larramendiri 1764.eko Abenduaren 20.an idatzitako gutuna eta bizkaitartzat hartzen du Larramendik lehen esan dudanez; giputzak euskalzaleagoak zirela uste zuen andoindarrak eta hala diotso Gandarari: "Agur Gandara jauna, giputz labaina dirudizuna, lausengar ta txuriketaz apaindua" giputzen mailara heldua, beraz. Eta Bizkaiko euskalkian idazten saiatzen zaigu Larramendi, maite duela gainera aitortuz: "Horra bukatu dot gutun nekagarri hau, **zeuben** (9) eskarako **berbeagaz**. Eskara guztiok **dodaz** maite, ta gozo!"

Orduko bizkaiera ezagutzeko testuak baditugu, baina Gernikan dagoen bat ez da orain arte argitara eman eta atsotitz honen berri ematea dagokit. Gandarak ezagutu zuen seguraski, bera zegoen Parrokian idatzita baitago 1734.etik. Andra Maria Parrokiaren kanpai artean, gorengoen artean hegoalderantz kokatua da, inskripzio hau daramana: "Santa Barbara ora pro nobis. Año de 1734 (goiko aldean), **Zeuc enzunago eriyozea davcazu urrago**" (beheko aldean). Bizkaiera garbian idatzita dago errefrau edo atsotitz hau, "z"

(9) *Zeuberi* agertzen da Telletxea Idigorasen transkripzioan.

fonema “tz” ez ezik errespetatzen duena eta “y” bokalen artean. “Cuanto más me oigas, más cerca tienes la muerte” diosku Gernikako kanpaiak.

Gernikatik Larramendiren herri ingurura bagoaz, Hernanira, alegia, beste atsotitz eta esaldi pila bat aurkitzen ditugu orain arte inork erabili ez duen testu batetan. 1744an hauzitara eraman zituzten hernaniar batzu eta defentsiorako bildurik hauzi paper bitxi bat argitaratu zuten (13 orrialde ditu, 29 × 19 zentimetrodunak) gure bibliografietan ikusten ez dudana eta Azkue Bibliotekan datzana. Hala dio paperaren izenburuak: *La tertulia de Hernani a los bien intencionados, salud y Pascua Florida*. Gaztelaniaz idatzia da, edo hobe esan inprimatua eta tarteka azaltzen dira euskarazko hitz eta esaldiak. Agerzten diren ordenan emango dizkizuet, ezer aldatu gabe:

1. Beraz, guezurra diote.
2. Ez orixe, gaz pipertuac gaude.
3. Idiac bearrean, gurdia orro.
4. (Plantar todos los) lancberris.
5. Tonto lapicos.
6. Ba padiagu, arriari agoza.
7. Esquerric asco.
8. Gaudem isilic.
9. Musean jocatu dira, eta laguncho ori ibilli da noronz eguzqui aronz burusi.
10. Urليا, baiote?
11. Alajaña, ezpaderitzat eguia.
12. Eta au onela ezpada, oquerrac zecen ditzala. Eztidilla zapuztu; noizean bein loac artzen du edocein.
13. Gvudeo berriz isilic, ezperen mingaña dilit dilit dagoquit.
14. Igues vide farragarria.
15. Onec eztaquite latin hura (tempus loquendi et tempus tacendi).
16. Goacen bada urren artean.

Hor uzten dut beste batzuentzat transkripzio hau, interesgarria delakoan. Baina, Larramendiren antzera, hirureletakoa da Hernaniko Tertuliaren agiri hau, frantsesez ere idatzia baita: *A revoix Messieurs* (sic), *au revoir* esan beharrean. Bitxia dugu beraz Hernanin 1744an atera zuten hauzi paper hau.

Berriz Gandararen harira jo beharko dugu, bera eta bere lana baitira aztertu behar ditudanak. Sei dira Gandararen lanak, euskaraz idatziak, orain arte nik ezagutzen ditudanak. Kronologikoki lehenak, hiru Gabon Kanta, jadanik argitaratuak. Beste hiru, gaur lehendabizi moldiztegiko bidea hartzen dutenak. Gaztelaniazko olerkitxoak ere baditu, baina ez diegu hemen tokirik utziko (ikus “Euskera” 1976). Orain arte argitara emandakoak honako hauek dira:

1. 1757 - *Gabon Canta del año de 1757 Euskera* agerkarian eman nuen honen berri, 1976, 89-98 orrialdeetan).
2. 1762 - *Gabon Canta Guernicacoa. Hurte 1762* (Joseba Andoni Lakarrak aurkitu zuen Real Academia de la Historiako Artxi-

boan eta "Idatz & Mintz" aldizkarian argitara eman zigun testua 1982, 2) (10).

3. 1764 - *Guernicaco Gabon Cante. Hurte 1764*. Jose Inazio Telletxea Idigoras jaunak aurkitu zuen Madriden, Real Academia de la Historiako Artxiboan hau ere eta Manuel Lekuona jaunaren irazkinekin BRSBAP aldizkarian argitaratu zuen, 1966, 2, 157-171 orrialdeetan. Lan honekin batera eman zigun baita ere Telletxea jaunak Gandararen gutun bat, Larramendiri zuzendua (1764-12-20) eta andoaindarraren beste gutun bat, Gandarari zuzendua (1763-1-23).

Eta argitara gabeak, hiru hauek dira:

4. 1768 - *Ama maitegarriari Zortziko. Cecellaren 3, Hurte 1768*.  
 5. 1768 - *Ama maitegarriari bere jaiozan. Cecellaren 14 garrenean. Urte 1768*.  
 6. d.g. *Ardaoaren ganian*.

Baina azken hiru hauen testuak eman orduko, ohartxo bat egin beharrean aurkitzen naiz. 1976an lehen Gabon Kanta argitara eman nuenean, Gandarak lelo edo euskaritxuan darabilen hitz bat, hots, FARARIRA, zer zen ez nekiela esan nuen. Geroko Gabon Kantan ere, hots, 1764an, TANTARARAI hitza darabil Gandarak. Biak dira onomatopeiak, testu gabeko melodiaren zati bat kantatzekoak, XVII eta XVIII. mendean erabiltzen zirenak. Baina lehen onomatopeiari buruz gauza bitxi bat irakurri nuen geroztik, Eximenoren *El Arte de la Música* liburu ederrean. Josulagun honek —berriz josulagunak— Gregorio Bellabene (1720-1803) italiarraren Meza bat kritikatzan zuen, ahotsen kontrapuntuagatik, bata bestearen atzetik etorririk, TARRARI-RA nabarmentzen zelako. Lau ahotsetarako musikaturako Meza honetan, ahots bakoitzak libreki testua kantatzen zuenez, entzuten zen bakarra zera zen:

1. bonae volun TA tis
2. Ado RA mus Te
3. Glo RI ficamus Te
4. Ado RA mus Te

Kritika hau 1774an egin zion Eximenok musikegileari, beraz Meza hori ordurako eginda zegoen, Gandararen garaian. Hain nabarmena bazen entzuten zen TARRARIRA hori, Meza horretatik atera ote zuen gure Gandarak Madriden edo entzun ondoren?

---

(10) J. A. Lakarrak eman zidan originalaren fotokopia. Nik daukadan Gandararen originalarekin konparatuz, Madriden dagoena ez da Gandararen eskuizkribua, kopia bat baizik. *Idatz & Mintz* aldizkarian agertzen den testuak bi errata ditu: 5. bertsoan, azken lerroan, "gustua" dio eta "gustia" esan behar du. 6. bertsoan, azken hurrengo lerroan "Berazo" dio eta "Beraro" esan behar du.

Goazen Gandararen lan ezezagutuak ematera. Esan dugunez, hiru dira, Ama maitegarriari, Ama Birjinari alegia, 1768an egindakoak lehen biak, eta Ardoari egina bestea, baina data gabe eta amaituke berau. Testuak emango ditut, metrikaren ezaugarriak alboan jarritz.

## I

**AMA MAITEGARRIARI,  
ZORTZICO**

- |  |  |   |
|--|--|---|
| <p>1. Cerren zarean ceurez<br/>ama ongiroa,<br/>Virgiña, ceugan daukat<br/>neuronen gogoa:<br/>icendatuagas ceu<br/>poza dot artuten,<br/>amudioz jatala<br/>bioza beteten.</p>      | <p>7<br/>6 A<br/>7<br/>6 A<br/>7<br/>6 B<br/>7<br/>6 B</p> | <p>4. Ceure ideric inox<br/>izan estalaco,<br/>esta izango bere<br/>mundua daneco:<br/>orregaiti, Andrea,<br/>bacarra zara zu;<br/>enda guztioac alan<br/>aitortuten dogu.</p>    |
| <p>2. Gustiori ederra<br/>oranen bagaric,<br/>zara, Jaunaren escuz<br/>sortu cineanic:<br/>eguiya gordetarren<br/>vicia emonda,<br/>artez eguin nai neuque<br/>ceu gañanz egada.</p> |  | <p>5. Edocein becataric<br/>dau igueslecu<br/>ceugan, escatuagas<br/>ceuri amparua:<br/>Estaquiana ondo<br/>arte au billatzen,<br/>bere burua berac<br/>deungaro dau galtzen.</p> |
| <p>3. Sortuera ceureac<br/>onezco barria<br/>mundo char oni eutsan<br/>ecarri, Maria:<br/>Jaungoicoaren seme<br/>bococh beticoa<br/>zala sabel ceurean<br/>araguitzecoa.</p>         |  | <p>6. Ceruco Erreguina,<br/>balia zaquiguz,<br/>erregututen auxe<br/>egongo gachazus:<br/>izan dedilla gueure<br/>arnasa azquena<br/>Jesus onenarequin<br/>ceurorren icena.</p>   |

Cecellaren 3 Hurte 1768.

Bizkaierazko sei bertso hauek badute balio literarioa eta hizkuntzaren lekukotasuna ere. Baina nik hemen azpimarratuko nukeena da **zortziko** izena ematen diola Gandarak bertso molde honi, benetan gaur *zortziko txikia* denari. Beraz ez da *Ituringo Arotza*-rena ezagutzen dugun zortziko txikirik zaharrena, Gernikan egindako Gandararen hau baizik.



## II

## AMA MAITEGARRIARI

## BERE JAIOZAN

- |                        |     |                         |  |
|------------------------|-----|-------------------------|--|
| 1. Jayo cinean         | 5 A | 4. Bera ceurezat,       |  |
| zori onean             | 5 A | da ceu berenzat,        |  |
| ceruetaco lorea        | 8 B | esan seusquneti, zara:  |  |
| Ceuxec isurten         | 5 C | bada ceuleguez          |  |
| dozu Adanen            | 5 C | esta inor, ez,          |  |
| humeenzat amorea       | 8 B | izango aren gogara.     |  |
| 2. Ceure arguiac       |     | 5. Lurre ez ece,        |  |
| gueure begiac          |     | cerua bere              |  |
| gutziz alegretan ditu  |     | ceugana dago jarquiric: |  |
| cerureanic             |     | ceure jaiozan           |  |
| ondo lastanic          |     | biac egozan,            |  |
| munduac artuten zaitu. |     | miraritu ta ixilic.     |  |
| 3. Dauco biotza        |     | 6. Da Guztiala          |  |
| motzaren motza         |     | chit liberala           |  |
| oneresten ezteuzanac   |     | ceugaz, Maria, ciertu:  |  |
| eguiya dala            |     | ceuc gustiraco          |  |
| ceugan davela          |     | daucazulaco,            |  |
| atseden gosoia Jaunac. |     | gura dozunean aguertu.  |  |

Cecellaren, 14 garrenean. Urte 1768.  
Gandara.

Metrika aldetik neurri handietara jo du oraingoan Gandarak, hots, 10 + 8 silabadunetara, nahiz eta hamar silabadun lerroarekin 5 + 5, errimadunak biak, egin. Agustin Basterretxeak egindako berbera, beraz.

## III

## ARDOAREN GANIAN

- |                         |     |
|-------------------------|-----|
| 1. Ni nas aguintari bat | 7   |
| ez guizon es andra,     | 6 A |
| munduan bici dirian     | 7   |
| lau partiden jabe:      | 6 B |
| Guichi vizi leiteque    | 7   |
| munduan ni bague:       | 6 B |
| estauco gustorican      | 7   |
| enabenac maite          | 6 B |

2. Ardaoa dot izena	7
au gusto gozoa	6 A
gustoac berac mindu	7
espadau ardaoa,	6 A
ardaoric estanian	7
da gueure gorputza,	6 B
muguertasuna salbu-	7
ta, zacu bat utsa.	6 B
3. Erregue, ta Erreguina,	7
apaizac, anaiac,	6 A
zarrac, eta gasteac	7
dirade zaleac.	6 A
Mundu gustiac naidu	7
ardaoa adisquide	6 B
.....	
.....	

Amaitu gabe utzi zuen Gandarak hirugarren bertso hau, zortziko txikian asmatua, baina puntuak ondo zaindu gabe. Ardoari egindako hirugarren kanta bat dugu hau, Gandararen garaikide ziren Meagher eta Munibek egindakoen antzerakoa. Gandarak aipatzen dituen apaizen artean ez zegoen Manuel Larramendi, berak esaten baitio 1763.eko gutunean: “Ni hiruroguei ta amairugarren urtean sartua nabil... ardoric iñoiz ez, beti ura edaten dedala”. Gandara, ordea, apaiz edaleen artean ote zen? Hau dugu Sebastian Antonio de la Gandara, XVIII.mendean bizkaitar idazlea.